

MAITASUN ITSUA

Jon 16 urteko nerabe bat da, aurten Batxilergoko 1.mailan hasiko da bere lagun minarekin, hau da, Jararekin. Elkarrekin gorabera desberdinak bizi arren, baliteke lagun hau bere maitalea bihurtzea, nahiz eta tartean Iker izeneko mutil bat ere egon. Horrela izango al da?

Aiiii... Udako oporrak gaur bukatuko dira, a zer nolako pena daukadan...

Behintzat orain airez aldatuko dut, ez noa DBH-ra, Batxilergora noa, alegia.

Bihar lehenengo eguna ondo hasteko, goiz-goizean esnatuko naiz, instira garaiz heltzeko.

(Hurrengo egunean...)

Zer?!?! Goizeko zortziak dira!!! Ez naiz garaiz iritsiko!!! Ai ama...

Azkar, ohetik altxa eta armairutik lehenengo ikusi ditudan galtz-beltz batzuk hartu ditut, kamiseta manga-motzdun bat ere. Bi minututan arropak jantzi eta gosaltzera joan naiz, ogi-txigortua hotza zegoen jadanik, baina jan egin dut berotu gabe, ahal izan dudana bezala sartu dut osorik ahoan. Ez dut ezer ere edan baina ez daukat beharrik, beraz, ez zait axola.

Motxila besoetan jartzen hasi naizenean, nire arreba txikia, Klaudia, etorri zait hau esanez:

-Baina orain ez zara plazan zure Jara neska-lagunarekin gelditzen instira joateko?

- Aizu! Jara ez da nire neska-laguna!

Baina orduan gogoratu naiz Jara, nire lagun mina, plazan itxaroten egongo zela jadanik, eta ni hemen, oraindik etxetik irtetzen ziztu-bizian...

Ez dut nahi bera ere nigatik berandu heltzea, beraz korrika azkarrago egiten hasi naiz.

Azkenean, plazara heldu naizenean, Jara ikusi dut bere ordulariari begira.

Azkar jakin dut Jara zela, bere ile lisu eta marroixkarengatik, bere zango luzeengatik eta urrunetik disdira egiten duten begi handi eta esmeralda kolorekoengatik.

Jararen ondora joan naiz eta bertan, zergatik heldu naizen hain berandu galdetu dit. Nik lo gelditu naizela erantzun diot, buelta gehiago ez ematearren gaiari.

Jarak kezkatuta zegoela esan dit, apur bat haserre aurpegiarekin, eta ulertzen dut, OSO berandu heldu naiz eta.

Instira joaterako bidea hartzen hasi gerenean, Iker ikusi dut gu ibili garen kalearen amaieran, eta otoitz egin dut Jarak ez ikusteko. Berari gustatzen zaion mutila da, berak kontrakoa esan arren, eta ikusten duen bakoitzean, ni alde batera utzi, eta berarekin joaten da... Ez dut zorte handirik izan, berarekin joan baita ikusi duen momentuan, eta nik bakarrik ez uzteko esan diodan arren ez dit jaramonik egin.

Instira heldu gara, Jara eta Iker barre algaraka ikusi ditut bidean eta amorruez bete zait barrena; zergatik aldatzen nau handinahi horregatik?!?! Askoz ere jatorragoa naiz ni eta. Agh... Amorratu egiten nau bakarrik lkerren izena aipatzeak. Agian egia da apur bat gustatzen zaidala Jara... EZ! Baina nola gustatuko zait Jara betidanik ezagutzen bagara... eta gainera, egia izango balitz, seguru berak ez luke da berdina sentituko nitaz.

(Instititutik irten berri...)

Uste dut Jarari aipatuko diodala ez zaidala gustatu nola utzi nauen kale erdian goizean. Baina ematen du Jara aurreratu egin zaidala eta bera hurbildu zait.

-Kaixo Jon...

-Eeemmm... Bai kaixo Jara, gauza asko ditut egiteko...

-Beno segundutxo bat izango da soilik...

Esaldia bukatu baino lehenago, "agur" siku eta azkar bat bota diot, buelta emanaz eta ibiltzen hasiz. Baina ematen du ez duela erraz amore eman, korrika etorri da nire atzetik eta sorbalda ukitu dit. Momentu hartan bere eskuaren berotasuna sentitu dut, eta izoztu banintz bezela gelditu naiz.

-Aizu Jara... Ez zait asko gustatu nola utzi nauzun goizean... zera... Ikerrekin joan zarene...-

Oraingoan berak moztu nau.

-Bai, badakit, hortaz hitz egin behar nizun, uda osoan egon naiz itsututa, uda osoan ibili naiz Iker munduko mutilik hoberena zela pentsatzen, baina... ez da egia, beste pertsona bat dago, hobe, egunero irribarre bat eskeintzen didana eta benetan zoriontsu egiten nauena...

Orduan ikusi dut benetan ari zela hitz egiten, bere begi disdiratsuetara begiratu dut, eta momentuan konturatu naiz benetan gustatzen zaidala Jara eta benetan berekin egon nahi dudala. Lurrera begiratu du, gero niri eta gero berriz zorura. Azkenean pausu bat eman du aurrera eta musu bat eman dit. Gure ezpainak banandu direnean, besarkada bat eman diot eta etxera lagundu dit. Bide osoan ezer esan gabe egon gara eta hara heltzean zera esan diot:

-Jara, maite zaitut.

-Nik zu ere.

Beste musu bat eman dit masailean eta "bihar arte" batekin agurtu gara.

Oheratu naizenean, nire azkenengo pentsamendua Jara izan da, azkenaldian izan dudana egunik zoragarriena izan da eta une batera lokartu egin naiz, Jararen aurpegia irudikatuz nire barnean.

